

ADIERAZLEAK

SAIOAREN HASIERAK ETA AMAIERAK

Diseinatu edo formulatu alde zure aurretik nolakoak izango diren zure saioaren hasierak eta amaierak

Hasiera izango da **nondik gatozen eta nora goazen laburtzeko unea**: ikasleei agurra eginda, nondik gatozen gogoratuko da, hau da, memoria didaktikoa aktibatuko da, eta ondoren, helburuak eta egiteko moduak finkatuko dira labur (ahoz, arbelak lagunduta, eskema batekin...).

Jarraian, ondorengo jardueraren **jarraibideak edo kontsigna emango** dira.

Amaiera saioa **bukatzeko unea** da: une horretan laburtuko da saioan zehar egin dena, helburuak lortu diren ala ez, nola lan egin den... eta hurrengo saioetan zer egingo den. Halaber, ikasleak agurtuko dira joan aurretik.

ALDEZ AURRETIK PRESTATU

Ikasleen partaidetza sustatzeko zer egin dezakegu?

- **Ikasleren bati edo ikasle-talderen bati utzi** une horiek edo horietako bat (zati bat) bideratzeko ardura. Horretarako, eman eskemaren bat, parte hartzeko garaian kontuan hartu behar diren arau edo hizkuntza formula batzuen zerrenda...
- **Elkarrekin eraiki** daitezke (ikasle-irakasle). Horretarako sortu dinamika bat: egin dutena gogora ekartzeko hitzak arbelan jasotzea eta norbaitek gero laburtzea, irakasleak galdetzea eta ikasleen erantzunen bidez elkarrekin eraikitzea.
- Irakasleak **egindako galderen** eta ikasleengandik **jasotako erantzunen bitartez** eraiki litezke sarrerak eta amaierak.
- **Aurreko egunetik erabaki** daiteke datorren egunean nork egingo duen sarrerako edo amaierako unean, ordura arteko laburpena. Era horretan, sistematizatzeko bidea egin daiteke.
- Saioaren hasieran ikasleei tarte bat emanez, **binaka antola** daitezke ikasleak nondik gatozen eta nora goazen adierazteko. Laburpen moduan, hitzen bidez, zerrendak erabiliz, arbela baliatuz...
- ...

Eta ikasleen hizkuntzaren garapenean laguntzeko, zein jarraibide edo aholku eman dezakegu?

- **Erantzunak luzeak** izan daitezzen eskatu, egitura osoak.
- **Eman** (idatziz edo ahoz) **adibideak** ("Momentu honetan, xxx gaia lantzen ari gara; atzo xxx egin genuen xxx-gatik, xxx-lako; gaur, OSTERA, xxx egitea pentsatu dugu, egingo dugu...")
- Ikasle guztiekin adostu ondoren, **adierazi horma-irudietan** gela barruan erabiliko diren hizkuntza-egiturak.
- Ikasleei jakinarazi **egun bat lehenago, prestatzeko** denbora behar izatekotan.
- Ikasleek edo irakasleek egitura egokiak **birformulatuko** dituzte.
- ...

ERABAKI UNE BAKOITZEAN

Zein izango den irakaslearen parte hartze maila
zenbat hitz egingo duen, zertarako parte hartuko duen, zein unetan egongo den isilik...

Zein izango den ikasleen parte-hartze maila
ikasle jakin batzuen (irakasleak aukeratzeko duenean...) partaidetza (zer esango duten edo eskatuko zaien esateko, nola esango duten...).

Zein arau finkatuko diren parte hartzeko eskuak altxatuta, lehenik taldetan eta gero taldeko ordezkariak, zerrendaren arabera, izendatuz, borondatezko partaideak proposatuz, txandakatuz... ahalegindu partaideak ezberdinak izan daitezzen.